

SANTA BARBARAKO JAIETAN BERTSO MUSIKATUAK BIHAR

Eñaut Agirre (Iraulio Panttalone Band)

“Herri honetan ez dira bertsolariak bakarrik ateratzen!”

Ikuskizunak musika, bertsoa eta antzerkia, hirurak ditu nahastuan eta ‘Martin’ en -gutako edozeinen- bizitza kontatzen du; Milagrosan.



Goian, ezkerretik: Judith Montero, Pepe Otxandorena, Eñaut Agirre eta Idoia Noble; behean, Alberto Elosegi ‘Fray’ eta Xabier Legarreta ‘Arano’. Susi Elosegi, J.L. Urdangarin eta Mertxe Aizpurua falta.

■ Zer da Iraulio Panttalone Band?

Bertso eskolak urtero egiten zuen Bertso Musikatu emanaldi bat “Bertso Latan”. Behin, herriko bertsolariekin eta musikoe-kin Hernaniri begirako emanaldia egitea erabaki eta handik sortu zen *Iraulio Panttalone Band*.

■ Zeri kantatzen diozue?

Zeri baino gehiago zeini: jendeari. Aurreko emanalditik bertsoak, gaiak, musika.... aldatu egin ditugu. Jendeari begirakoa da mantendu duguna. Oso bertako egingo zaizkion gaiak landu ditugu umoretsu eta bizi... “erridikulo “ikuttu” haundi xamar batekin

■ Musikoak ere denak herrikoak dira...

Baietz esan liteke. Bada Errenteriko bat, (beno, Abañokoa) baina, ia bertako egina. Herri honetan ez dira bertsolariak bakarrik ateratzen!

■ Joxe Luis Urdangarin izan da aurtengo fitxaje berria?

Bai, eta ez nolanahikoa! Ikuskizuna antzerkia ere bada, eta bera da saioari lotura ematen diona

■ Painaletan ere ateratzen omen zara, ez al dizu lotsa puntturik ematen?

Gaitzerdi “puntuua” balitz!



FRAY ELOSEGI

Eskua ondo jarri zait eta moldatuko naiz. Haunditzen bazait ere izotza eraman eta...

■ Zer eskatuko zenioke publikoari?

Etortzeaz gain, ezer ere ez. Publikoa da guri eskatu behar diguna.

■ Aurrera jarraitzeko asmorik?

Ez dugu ezer erabaki. Musikoak itto xamartuta dabilta eta hitz egin beharrean gaude oraindik. □

IRAULIO PANTALONE BAND

Zein dira, ba?
Herriko bertsolari eta musikoak.

Noiz hasiak?

Orain bi urte, Bodegan.

Non ibiliak?

Lasarten, Ereñotzun, Astigarragan, ...

UDALEKO ‘JAI EGUNEN AUZIA’

Ika-mika eta iritzi ezberdinak udalean

Hasieran isilik samar pasa zen gaiak eman du zer esanik azken egunetan. Guk alkatea eta oposizioa-rengana jo dugu.



Mertxe Etxeberria
alkatea (EH)



Iñaki Arratibel
oposizioa (EA)

SANTIAGO, PILAR ETA KONSTITUZIO EGUNAK

⇒ Jai egunak aldatzeko eskaria, langileen iniziatiba izan da. Udalak Gobernu Batzordera eramatea erabaki zuen, ideiekin bat egiten baitugu. Gainera, epaitegiak agindutakoa bete dugu. Santiago eguna udalean jai egun izan zen legez, baina guk ez genion inori etortzeko trabarik jarri.

⇒ Santiago, Pilar eta Konstituzio egunetan lan egi-teak langileen eta herritarren eskubideak zapaltzen ditu. Langileek ezin dituzte euren eskubideak urratzen dituzten erabakiak hartu. Erabakia udalak atzera bota behar zuen. Guk errekurtoa horregatik jarri genuen.

ERANTZUKIZUNAK

⇒ Azken erabakia berea den aldetik, udalak erantzukizuna bere gain hartzen du, baina erabakia ez duela inposatu argi utzita.

⇒ EHk langileen erabakia bere politika egiteko eta erantzukizunak baztertze-ko erabili du.

PRESIOAK

⇒ Oposiziokoek esandakoaren alderantzizkoa gertatu da. Guk ez dugu inor etortze- ra behartu, eta jendearen erabakia errespetatu bai.

⇒ Langile batzuk presionatuak izan dira bozkatze-ko eta jai ez egiteko. Alkatearen asteleheneko azalpenarekin ere langile batzuk presionatu sentitu ziren.

**Eskatu zure
KRONIKA**

Debalde da.

**Lizeaga
taberna**

Biktor Hugo 5
Tel 943 333082
HERNANI




ETXE ONENAK, S.A.

**GARAJE ITXIAK
‘OBLATOS’ETAN
SALGAI**

Informatu eta saldu:

☎ 943 33.22.37

Jubilatuak Almeriara oporretan

Irailaren 21etik urriaren 1era joango dira autobusez. Izen emateko epea zabalik dago Jubilatuen Etxeko bazkideentzako.



Jubilatuen azken bidaia. Koadrilatxo bat A Coruñako Hercules dorrean.

HERNANIKO jubilatuen ez dira geldirik egotekoak. Irailaren 21ean sartu autobusean eta Almeriara doaz. Lehen gaua Toledon egingo dute eta handik aurrerakoak Aguadulcen (Almerian). Bertan *Almeria* hiruburura eta *Cabo de Gatarako* joan etorriak antolatuak dituzte. Gainerako eskurtsioak bertan zehaztekotan dira.

IZEN EMATEKO

Izen emateko epea zabalik dago jadanik. Bidaiaren kostua: 54.000 pezeta.

Animatzen denak ziurtatuak ditu lagun arte eta giro ona; erosotasun guztiekin gainera.

Badakizue beraz, duda haundiegirik gabe animo! ☐

GAUR DA UDALEKUETAKO AZKEN EGUNA

Argazki erakusketa Tilosetan eta antzerkia, txisteak... ikastoletan

Denera ia bostehun umeko koadrila ibili da. Hernani orain dela hilabete baino dexentez hobeto ezagutzen dute.

URUMEA ibaian, Santa Barbaran, Leokan, Ereñotzun, Sagardotegietan, baserrietan barrena... Hernaniko umeak ez dira hila-betean gelditu ere egin. Herritik kanpora ere atera dira: Donostiara, Urnietara, Astigarragara.... orain badakite zein ingurutan bizi diren.

“MUNDUKO HERRIALDEEN JAIA”
Akelarrea, Sanferminak, ur festa eta beste ospakizun asko ibili dute. Azkenengoa, munduko herrialdeen inguruko festa izango da. Egurdia bitartean dena. ☐



Txikito, udalekuak bukatu direla, ez dagoela gehiago!

HEMEROTEKA

La Razón

Alkateak jendea txarrera behartzen saiatu, eta udaletxea iriki egingo du nahi duena lanera joan dadin.

Koakzioa Hernanin

EH-k gobernatutako Hernaniko udaletxeko langileek lan egin zuten atzo. Epaitegiak Santiago eguna “festa espainola” dela-eta, lan egiteko “erabaki proetarra” atzera

bota izanagatik langileak joan egin ziren. Alkatearen koakzioak funtzionatu egin zuen. Garbi erakusten du horrek Espainiako alde horretan ez dela aspirazio bat besterik. ☐

www.larazon.es

HITZ BITAN



Zenbat ‘Kronika’ egiten ote dira feri aitzakian!

✓ ESKU PELOTA

Iosu Oiagak bihar debutazen du profesioaletan. Besagain enpresak hartu du Hernaniko aurrelari gaztea. Jaialdia gaueko hamarretan izango da, kiroldegian. Partiduak: Esnal eta Zubiaga, Zabala eta Oregiren aurka; bigarrena, Legorburu eta Alonso, Oiaga eta Fuertes-en aurka. Sarrerak, bertan: arrunta 1500 pezeta, eta bazkideena 1000. Kronikak, bihar, Iosu Oiagari egindako elkarrizketa aterako du

✓ ERREMONTEA

Elizaldek 18an utzi zuen Jokin Etxabe. Hernaniko azkoitiarra urduri atera zen. Hasieran Elizalderi eusten asmatu bazuen ere, azkenerako, behera egin zuen. Sakez ere, Elizaldek zazpi tanto sartu zizkion; Etxabek, berriz, bi sartu eta bi huts egin. Honenbestez, Bingo Londres Torneotik kanpora gelditu da. Beste batean beharko du.

✓ PRESOK

Gaur hileroko enkartelada egingo du Senideak elkarteak. Arratseko 20:00etan Gudarien Enparantzan elkartuko dira.

Presoen Aldeko Martxa Nazionalaren amaierako ekitaldia izango da bihar. N1 errepidean Giza Katea egingo da. Hernanin 11:15etan elkartuko dira Atsegindegin.

✓ ABIADURA HANDIKO TRENA

Abiadura Handiko Trenaren aurkako akanpada Arrasaten. Uztailaren 24tik abuztuaren 6rako hamaika ekitaldi antolatu dituzte: kontzertuak, tailerrak, mendik irteerak, hi-tzaldiak... Hernanitik ere koadrila joana da. ☐

HERIOTZAK

Fermin Oiarbide Zabaleta “Txabolategi” jauna

Atzo hil zen 81 urte zituela.

Hileta elizkizunak gaur arratsaldeko seietan Ereñotzuko San Antonio Parrokian

(Hernanitik autobusa izango da bostak eta laurdenetan)

☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943464622
943 335533
- Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- Egunez: **Chucla**
Kardaberaz, 48
☎ 943551793
- Gauez: **Elizondo**
Andoain, zumea, 30
☎ 943592629